



DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2017

LEHENDAKARITZA

1. Ekintza humanitarioetarako laguntzen deialdia.....	2
2. Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzen deialdia. Helburua: Nazioarteko Erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak ematea.....	4
3. Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzen deialdia	5
4. Garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» saria, 2017ko edizioa	7
5. Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte mugimenduei diru-laguntzak	8
6. Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa.....	9
7. Hezkuntza arloko elkarrekin bonuen programa.....	10
8. Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa	11
9. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak	12
10. Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak	13
11. 2017ko euskal etxeentzako dirulaguntzak	14
12. 2017ko egoera larrian dauden pertsonentzako diru-laguntzak	16
13. Gaztemundu 2017	17



1.- Izenburua

Ekintza humanitarioetarako laguntzen deialdia

2.- Araua

Ebazpena, 2017ko apirilaren 11koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2017ko garapenerako lankidetzaren kontura ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko deialdia egiten duena.

31/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen dituena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hondamendi naturalen edo gatazka armatuen ondoriozko krisialdi humanitarioei erantzutea da deialdiaren xedea. Laguntzen deialdia bi finantzaketa-linearen bitartez egiten da:

- a) Finantzaketa iraunkorreko linea, PRE: Deialdia zabalik egongo da larrialdietan laguntzeko proiektuetarako eta ekintza humanitarioko proiektuetarako zuzkidura agortzen den arte.
 - Larrialdietan laguntzeko proiektuak: Hondamendiek eragindako pertsonen biziraupena bermatzeko eta sufrimendua arintzeko oinarrizko ondasun eta zerbitzuen premiazko hornidurara bideratzen dira. Gehienez 6 hilabeteko iraupena izango dute (beste 6 hilabetez luzatzeko aukerarekin); gehienez 200.000 euroko diru-laguntza jasoko dute eta ez da baterako finantzaketarik behar izango (9. art. eta 35. art.).
 - Ekintza humanitarioko proiektuak_Jarduerak premia hain handia ez dutenean eta garapenerako, giza eskubideetarako eta bakea eraikitzeko oinarriak sustatu nahi dituztenean. Gehienez 12 hilabeteko iraupena izango dute (beste 12 hilabetez luzatzeko aukerarekin); gehienez 200.000 euroko diru-laguntza jasoko dute eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik lortu beharko dute, gutxienez, aurrekontuaren gutzizkoaren % 20 (9. art. eta 35. art.).
- b) Ekintza humanitarioko estrategia-markoak. Eremu humanitarioan espezializatutako euskal erakundeentzako norgehiagoka-prozedura bidezko deialdia ekintza humanitarioko proiektuetarako. Aurrekoetan ez bezala, estrategia-markoetan iraupen, aurrekontu eta eragin handiagoko ekintzak txerta daitezke. Gehienez 24 hilabeteko iraupena izango dute (beste 6 hilabetez luzatzeko aukerarekin); gehienez 800.000 euroko diru-laguntza jasoko dute eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik lortu beharko dute, gutxienez, aurrekontuaren gutzizkoaren % 20 (23. art. eta 25. art.).



4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren behin-betiko diru-zuzkidura 5.493.923,87 eurokoa izan zen.

Larrialdiko eta Ekintza Humanitarioko laguntzen deialdi bat (finantzaketa-linea iraunkorra eta ekintza humanitarioko estrategia-markoak), aurrekontu-programaren magnitudeetan ezarritakoari jarraikiz. Linea iraunkorrerako 29 eskaera jaso genituen eta ekintza humanitarioko estrategia-markoetarako 9 eskaera. Jasoetako eskaeren artetik, honako laguntza hauek ematea onartu zen:

Larrialdiko eta Ekintza Humanitarioko 17 laguntza (finantzaketa-linea iraunkorra) eman ziren. Emandako laguntzen kopuru horrekin, aurrekontu-memorian aurreikusitako magnitudeak bete eta hobetu egin dira, 11 laguntza ematea aurreikusi baitzen (hasieran planifikatutako zuzkiduraren arabera).

Larrialdiko eta Ekintza Humanitarioko 3 laguntza (estrategia-markoen linea) eman ziren. Emandako laguntzen kopuru horrekin, aurrekontu-memorian aurreikusitako magnitudea % 100 bete da, 3 laguntza ematea aurreikusi baitzen.

Diruz lagundutako proiektu horien bitartez, hondamendiek eta krisialdi humanitarioek eragindako pertsonen babesa, edateko ura, elikagaiak eta laguntza sanitarioa eskaini zaie; halaber, hondamendi ostean prebentzioko, arintzeko eta errehabilitazioko ekintzak, bakea eraikitzeko ekintzak eta giza eskubideak babesteko ekintzak ere egin dira hainbat herrialdetan: Palestina, Sahara, Siria, Turkia, Etiopia, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Afrika Erdiko Errepublika, Filipinak, Haiti, Ekuador, Peru eta Kolonia.



1.- Izenburua

Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzen deialdia. Helburua: Nazioarteko Erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei beka ematea

2.- Araua

Ebazpena, 2017ko ekainaren 1ekoa, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Nazio Batuen erakundeko nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzako laguntzak, 2017. Urtean erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei beka emateko.

22/2007 Dekretua, otsailaren 13koa, Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeei eta haiei lotutako pertsona juridikoentzako laguntzak arautzen dituena. Helburua: Nazioarteko Erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei beka ematea

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Beka-deialdi honen bitartez, Nazio Batuek herrialde txirotuetan duten sistemari atxikitako nazioarteko erakundeetan Euskadiko gazte profesionalak txertatu nahi dira. Beka 12 hilabeteko iraupena izango du, beste 12 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Laguntzetara bideratutako zuzkidura 300.000 euro izan zen, guztira. Hautagai bakoitzaren oinarrizko zuzkidura 18.000 euro izan da (borondatezko lankidearen konpentsazio ekonomikoa, aseguruaren gastuak eta garraio-gastuak estaltzeko) eta beste gastu batzuk ere finantzatu ziren: agentzia multilateralen arloko prestakuntza berezian izandako gastuak –prestakuntza hori entitate eskatzaileek emango dute-, eta entitate eskatzaileek kandidaturak aurrez aukeratzeko eta beka jarraipena egiteko izandako kudeaketa-gastuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzen deialdia, aurrekontu-programaren magnitudeetan xedatuta zegoen bezala. 20 eskaera jaso ziren eta horietatik 16 laguntza onartu ziren, gehienbat Afrikako herrialdeetara –esaterako, Senegal eta Etiopia– bideratutako borondatezko lankideentzat. 16 laguntza horien bitartez, borondatezko lankideak Nazioarteko Erakundeen –hala nola NBE Emakumeak, FAO, UNESCO eta UNICEF– programetan parte hartzen ari dira eta, besteak beste, haurren eskubideekin, genero-berdintasunarekin, elikagaien segurtasunarekin, kultura eta ondarea sustatzearekin lotutako lanak egiten dituzte. Aurrekontu-memorian aurreikusitako magnitudea 16 laguntza da; beraz, aurreikuspena % 100 bete da.



1.- Izenburua

Garapenerako lankidetzaproiektuetarako laguntzen deialdia

2.- Araua

2017ko maiatzaren 17koa, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena, garapenerako lankidetzaproiektuetarako 2017ko laguntzen deialdia iragartzen duena.

34/2007 Dekretua, otsailaren 27koa, Garapena eta Lankidetzeta Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena, eta dekretu hori aldatzen duen uztailaren 23ko 390/2013 Dekretua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren bitartez, lankidetzako euskal politikaren kalitatea finkatzen eta hobetzen laguntzen da, gizarte-eraldaketako, egiturazko pobrezia desagerrarazteko eta giza garapen iraunkorra sustatzeko helburuak garatzearen. Deialdi hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak garapenerako lankidetzaren alorrean jarduteko duen ardatz nagusia da, funts ugari bideratzen dituelako eta askotariko ekintzak biltzen dituelako. Hona hemen laguntzen modalitateak:

- Garapen-lankidetzarako proiektuetarako laguntzak (I. kapitulua). Hegoaldeko herrialde pobretuetako pobreziaaren aurkako borrokan sartzen diren garapen-ekimenetarako laguntzak, EAEko eta tokiko irabazi-asmorik gabeko garapenerako lankidetzakerakundearen bitartez. Modalitate honetako garapen-lankidetzarako proiektuen bitartez, proiektuak gauzatzen diren herrialde eta eskualdeen prozesu endogenoak eta gaitasunak indartzen dira. Tokikoari lehentasuna ematen zaio, estatukoari eta nazioartekoari loturik.
- Produkzio-garapenerako, eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak (II. kapitulua). Produkzio-garapenerako, eta prestakuntza eta laguntza teknikoko proiektuei emango zaizkien laguntzak. Proiektu horiek herrialde pobretuetako pobreziaaren kontrako borrokarekin zuzenean lotuta daude. Ekintzak Hegoaldeko herrialdeetan edo Euskadin egin daitezke. Azken kasu horretan, erakundeek ez dute tokiko bazkiderik izan behar.
- Garapen-hezkuntzarako proiektuetarako laguntzak (III. kapitulua). Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak, irabazi-asmorik gabeko euskal erakundearen bitartez. Linea honetako proiektuak epe ertain-luzeko hezkuntza-proposamenak dira, eta EAEko herritarrei prestakuntza ematea dute xede, munduan dauden ezberdintasunak eragiten dituzten egiturazko



arrazoia uler ditzaten eta egun nagusi diren garapen-ereduak aldatzeko konpromisoa hartu eta inplika daitezten.

Laguntza horietara hasieran bideratutako zuzkidura 35.000.000 euro izan zen. Alabaina, zuzkidura hori handitu egin zen eta 40.000.000 euroko zuzkidura orokorrera iritsi zen. Zuzkidura ekonomiko hori honela banatu zen:

- I. kapitulua: 32.750.000 euro
- II. kapitulua: 1.200.000 euro
- III. kapitulua: 6.050.000 euro

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira 194 eskaera (151 garapen-lankidetzaren modalitatean, 5 produkzio-garapenaren eta prestakuntza eta laguntza teknologikoaren modalitatean, eta 38 garapen-hezkuntzaren modalitatean). Jasotako eskaeren artean 105 proiekturi laguntzea onartu zen, eta honela banatzen dira modalitateen arabera:

- Garapenerako lankidetzako proiektuak. Modalitate horretara bideratu zen laguntzen zati handiena, hau da, guztira 32.871.377,07 euro 70 proiektutarako.
- Produkzio-garapeneko eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuak. 1.043.119,83 euro bideratu zen 3 proiektutarako.
- Garapenerako hezkuntzako proiektuak, Euskadin gauzatutakoak. Modalitate horretan 32 proiektu onartu ziren 6.085.503,10 euro bideratu ziren.

Diruz lagundutako proiektu horien bitartez, gizartea eraldatzeko jarduerak bultzatu dira bai hegoaldeko herrialdeetan, bai Euskadin, honako arlo hauetan: tokiko garapen ekonomikoa, emakumeen ahalduntzea, gobernantza demokratikoa eta tokiko boterea indartzea, ingurumena zaindu eta babestea, eta giza eskubideak sustatzea. Aurrekontu-programan aurreikusitako magnitudea 96 laguntza izan zen hiru modalitateetarako (deialdi honetarako hasieran planifikatu zen zuzkiduraren arabera). Hiru modalitateetarako 105 proiektu onartu direnez, proposatutako magnitudea bete eta gainditu egin da



1.- Izenburua

Garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» saria, 2017ko edizioa

2.- Araua

Ebazpena, 2017ko azaroaren 7koa, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkari nagusiarena, Garapenerako lankidetzaren «Ignacio Ellacuría» sariaren 2017ko edizioaren deialdia egiten duena.

189/2008 Dekretua, azaroaren 18koa, azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian – 228. zenbakian– argitaratu zen eta garapen-lankidetzarako "Ignacio Ellacuría" saria arautzen du.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

“Ignacio Ellacuría” sariaren helburua honako hau da: Euskaditik edo euren jatorrizko herrialdeetatik herrien arteko berdintasunaren eta justiziaren alde eta pobrezia ezabatzeko ekintza adierazgarriak egiten ari diren erakunde eta pertsonen lana ikusgai bihurtzea eta aitortzea. Saria 15.500 euro dira

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzen deialdia, 2017rako aurrekontu-programaren magnitudeetan xedatuta zegoen bezala. 3 hautagai jaso ziren eta, azkenean, Guatemalako indigenen buruzagi Aura Lolita Chávez Ixcaquic izan zen sariduna. Saria eman denez, aurrekontu-programan ezarritako magnitudea % 100 bete da.



1.- Izenburua

Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte mugimenduei diru-laguntzak

2.- Araua

415/2013 DEKRETUA, irailaren 24koa, memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak jorratzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko dena.

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 12koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei laguntzak emateko deialdia 2017. urterako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da diru-laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu irabazi-asmorik gabeei, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatu ditzaten gure autonomia-erkidegoan.

Eusko Jaurlaritzaren jardueraren helburuetariko bat da, hain zuzen, euskal gizartean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza bultzatzea, dauden baliabideak optimizatuz, sektore estrategikoen arteko beharrezko sinergiak sortuz, eta jardun-programa koordinatua garatuz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 166 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 92 erakundek aurkeztu dituzte. Diruz lagundutako jarduerak 8.000 inguru izan dira. 600.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 18oa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2017ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da Herritarren parte-hartzearen Elkarrekin Bonuak programaren 2017rako deialdia egitea.

Programa horren bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 41 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 16 erakundek aurkeztu dituzte. 100.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

Hezkuntza arloko elkarrekin bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 8koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2017ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2017ko deialdia egitea.

Programa honen bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 180 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 28 erakundek aurkeztu dituzte eta 161 eskolatan egin dituzte. 350.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 18koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, tokiko bizikidetzaren arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2016rako deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen xedea da Tokiko Bizikidetzaren Esparruan Elkarrekin Bonuak programaren 2016ko deialdia egitea.

Programa honen bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 23 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 13 erakundek aurkeztu dituzte eta 11 udaletxetan egin dituzte. 150.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

415/2013 DEKRETUA, irailaren 24koa, memoria historikoaren berreskurapena, bakea, bizikidetzaren eta giza eskubideak jorratzen dituzten proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko dena.

EBAZPENA, 2017ko martxoaren 2koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko bideratutako laguntzetarako deialdia, 2017. urterako

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta gainerako tokiko erakundeek laguntzak ematea giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren arloan programak eta ekimenak egin ditzaten.

Bestalde, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoan garrantzi handia dauka toki-mailan egindako lanak. Horregatik, gobernu honen lehentasunetarikoa bat da udal-ekintzak bultzatzea, bakea sendotu eta bizikidetzaren eraikitzeke.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 97 proiektu diruz lagundu dira; proiektuok 74 udalerritakoak dira, 5.600 biztanle inguru hartzen dutenak. 300.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak

2.- Araua

5/2016 DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten elkarteentzako eta erakundeentzako laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 25ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, zeinak 2017. urteko laguntzetarako deialdia egiten baitu terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako.

3.- Diru-laguntzen programen azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da, hain zuzen, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko programaren aplikazio-eremuarekin zerikusia duten antolakunde pribatuen proiektuak eta jarduerak sustatzea. Kasu honetan, eta antolakunde horiek egin nahi duten jarduera integratzailea garatzeko dauden premia ekonomikoez jabetuta, laguntzak ezartzen dira kalte pertsonalak sortu dituzten ekintza terroristen biktimei laguntza, babes humanoa eta laguntza psikosoziala emateko jarduerak sustatzeko, argiro lehenetsiz ohiko laguntza, laguntza psikosozial eta morala, talde-terapiak, eta abarretatik bereizten diren antolakundeen programak eta jarduerak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 39 proiektu diruz lagundu dira, 20 elkartek aurkeztuak, eta 260.000 euro banatu dira.



1.- Izenburua

2017ko euskal etxeentzako dirulaguntzak

2.- Araua

50/2008 DEKRETUA (EHAA Zk. 69/2008) martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena, 175/2014 DEKRETUAK (EHAA Zk. 176/2014), irailaren 9koa, aldatuta.

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 13koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2017an euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzetara biltzeko deia egiten duena

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 27koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2017. urtean Euskal Etxeei eman zaizkien diru-laguntzen berri ematen duena

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal etxeentzako dirulaguntzak ohiko gastuak, jarduerak antolaketak eta azpiegitura eta ekipamendu gastuak finantzatzeko

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

IV. Kapituluari 781.294,54 € esleitu ziren 19 herrialdeko 71 euskal etxeetara eta VII. Kapituluari 80.000 € esleitu ziren 7 herrialdeko 14 euskal etxeetara

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak:

4. Kanpoan den euskal komunitatea indartzen laguntzea, euskal etxeen sarearen bidez.

4.3.1. Euskal etxeek euskal errealitatearen berri emateko bitarteko gisa betetzen duten funtzioa indartzea. Euskal etxeek antolatutako jardueren kopurua: 737, aurreikusita 750.

4.3.3. Euskal etxeen jarduerak bultzatzea presentzia duten gizarteetan. Beste eragile batzuekin egindako jardueren kopurua: 150, aurreikusita 120.

4.3.4. Euskal etxeetan informazio eta komunikazioaren teknologien sarrera bultzatzea. Erabilitako komunikazio kanal berrien kopurua: 3, aurreikusita 3.

2017an, diru laguntza jasotzeko, zehazki 737 ekintza aurkeztu ziren jasotako 73 eskaeretan. Horrez gain, kontuan hartuko balitz funtzionamendu eta azpiegiturarako aurkeztutakoa, 1.390era igoko lirake, eta horiek ofizialki onartutako 191 euskal zentroetatik martxan diren 150 zentrotan egindako 2.856 ekintzetara estrapolatu daitezke. Modu berean, martxan diren euskal etxe guztiek harremanak dituzte gutxienez tokian tokiko eragile batekin, eta askotan askoz gehiagorekin. Amaitzeko, euskal etxeek erabilitako komunikazio kanal berri gisa Facebook, Twitter eta Instagram sartu dira, baina haien erabilera aldatzen da leku batetik bestera.



Aurreko deialdietan izandako betetze maila, oro har, ona izan da. Euskal zentroek aurreikusitako xedeetarako erabiltzen dute diru laguntza. Hautemandako desbideratzeak gertatzen dira adierazle batzuk ezin direlako aurreikusi eta beste batzuk neurtzeko metodoa hobetzen delako. Euskal zentroek jaso dezaketen diru laguntza 30.000 €-ra mugatzean, banaketa bidezkoagoa bermatzen da zentro handien eta txikien artean, azken horiek askotan diru laguntzaren baitan geratzen baitira euskal kulturaren difusiorako jarduerak egin ahal izateko.



1.- Izenburua

2017ko egoera larrian dauden pertsonentzako diru-laguntzak

2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko dira

EBAZPENA, 2017ko urriaren 17koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena. Honen bidez, euskal etxeei diru-laguntzak emateko 2017. urteko deialdia egiten da, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 21ekoa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, euskal etxeei diru-laguntzak ematen dizkiena, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da euskal etxeei laguntza ekonomiko zuzenak ematea, euskal gizataldeetako partaideen asistentzia premiak eta egoera larriak atenditzeko 2017. urtean zehar.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartearen

Lortutako emaitzak:

194.641,51 € esleitu ziren 6 herrialdeko 16 euskal etxeen 111 familientzako. Batez besteko dirulaguntza: 1.753,53 €.

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak:

4.4. Kanpoko euskal komunitatea osatzen duten pertsonen arreta ematea.

4.4.1. Premia larrian dauden familia unitateen laguntza ematea. Lagundutako familia unitateen kopurua: 111, aurreikusita 80.

Eragina gizartearen:

Aurten Kubatik etorritako eskaerak jasotzen jarraitu dugu, baina joan den urtean baino maila apalagoan. Laguntza horiek oso baliagarriak dira, eta gizarte eragin onuragarria dute kanpoan den euskal komunitatearen sektore kaltetuenetan.



1.- Izenburua

Gaztemundu 2017

2.- Araua

316/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena, 38/2015 DEKRETUAK, martxoaren 31koa, aldatuta.

EBAZPENA, 2017ko apirilaren 25ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Gaztemundu programaren 2017. urteko ediziorako deia egiten duena.

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 23koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2017ko edizioko Gaztemundu programan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko dena.

EBAZPENA, 2017ko uztailaren 31koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2017ko ekainaren 23ko Ebazpena aldatzeko dena.

EBAZPENA, 2017ko abuztuaren 23koa, Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendariarena, 2017ko ekainaren 23ko Ebazpena bigarren aldiz aldatzeko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hona zertan den Gaztemundu Programa: gazteek egonaldia egingo dute Euskadin, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak finantzaturik, gaurko errealitatera hurbil daitezten eta gero Euskal Etxeetan isla dezaten. Egonaldi horretan, parte-hartzaileek parte hartu beharko dute eurentzat antolatzen diren lan jardunaldietan, eztabaida foroetan eta kultur gunetara, erakundeetara eta turismo gunetara egingo diren bisitetan.

Hauek dira Gaztemundu Programaren helburuak:

- a) Euskal Etxeetako gazteek gaur egungo Euskadiri buruzko heziketa eta jakintza zabalagoa izatea, eta Euskadin lan egiten duten eta bizi diren elkarte, erakunde, enpresa eta pertsonekin harremanak izatea.
- b) Euskadin bizi diren euskal gazteen eta kanpoan bizi direnen arteko harremanetarako gunek sustatzea, eta kanpoan bizi diren euskal gazteak Euskal Etxeetan parte hartzera bultzatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak:

50.000 € 3 herrialdeko 11 euskal etxeen 14 gazteentzako (15 ziren hasieran, baina bat bota zen adin-baldintza ez betetzeagatik).

Ez dago aurrekontu indikadorerik ezta magnituderik.



1996an Eusko Jaurlaritzak sortutako Gaztemundu programaren helburua bikoiztua da: gaur egungo Euskadi jakinaraztea eta euskal etxeen batzordeetan gazteak sartzeko bultzatzea. Orain arte, 800 gazte baino gehiago irakatsi ditugu eta gehienak euskal etxeen batzordetan edo erresponzabilitate postuetan daude.